**DECRETO**

Espte. erref. / Ref.expte. 3043/2021 Onartuen behin betiko zerrenda / Lista definitiva de admitidos

1472/21 Dekretuaren bidez, erabaki zen, emakida-emaileek betetzen ez dituzten garaje-plaza libreen errentamendua lehia-araubidean emateko espedientea hastea, eta Iturrondo, Lapurdi, Paopa, Berezikoetxe eta Laminarrietako udal-garajeetan aparkaleku-errentamenduaren emakida arautuko duten administrazio-klausulen pleguak onestea.

Mediante Decreto Nº 1472/21 se acuerda incoar expediente para el otorgamiento en régimen de concurrencia del arrendamiento de las plazas de garaje libres (no ocupadas por concesionarios) y aprobar los Pliegos de Cláusulas Administrativas que han de regir el citado otorgamiento de arrendamiento de aparcamiento en los garajes municipales: Iturrondo, Lapurdi, Paopa, Berezikoetxe y Laminarrieta.

Eskaerak aurkezteko epea amaituta, abuztuaren 10eko 2021-1654 Dekretuaren bidez, 2021-1697 Dekretuz zuzenduta, aparkalekuetako plazak alokatzeko zozketan parte hartzeko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsi zen, eta 10 eguneko epea eman zen akatsak zuzentzeko.

Finalizado el plazo de presentacion de solicitudes, mediante Decreto 2021-1654, de 10 de agosto, rectificado por el Decreto 2021-1697, se aprueba la lista provisional de admitidos y excluidos para formar parte del sorteo para el arrendamiento de plazas en los aparcamientos y se concede un plazo de 10 días para subsanar los defectos existentes.

Baldintzen pleguko 12.3 klausularen arabera, eskabideak aztertu ondoren, Alkatetzaren Dekretu bidez onartuko dira behin betiko zerrendak.

De acuerdo a la cláusula 12.3 del Pliego de condiciones, examinadas las solicitudes, se procederá a la aprobación mediante Decreto de Alcaldía de las listas definitivas.

Gainera, 12.4 klausularen arabera, Alkatetzaren Dekretu bidez zehaztuko dira zozketaren Arauak eta garaje bakoitzak eskaini beharreko plazen zerrenda.

Además, en virtud de la cláusula 12.4, mediante Decreto de Alcaldía serán determinadas las Normas del Sorteo y la relación de plazas a ofertar por cada garaje.

**HONAKO HAU XEDATU DUT:**

**VENGO EN DISPONER**

**LEHENENGOA.-** Iturrondo, Lapurdi, Paopa, Berezikoetxe eta Laminarrietako aparkalekuetan plazak alokatzeko zozketan parte hartzeko onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onartzea.

**PRIMERO.-** Aprobar la lista definitiva de admitidos y de excluidos para formar parte del sorteo para el arrendamiento de plazas en los aparcamientos de Iturrondo, Lapurdi, Paopa, Berezikoetxe y Laminarrieta.

**BIGARRENA.-** II. eranskin gisa erantsitako aparkalekuetan garaje-plazak alokatzeko zozketaren arauak onartzea, bai eta garaje bakoitzak eskaini beharreko garaje-plazen zerrenda ere.

**SEGUNDO.-** Aprobar las Normas del Sorteo para el arrendamiento de plazas en los citados aparcamientos que se adjuntan como Anexo II, así como la relación de plazas a ofertar por cada garaje.

.

**HIRUGARRENA.-** Jakinarazi behar da zozketa publikoa urriaren 15ean egingo dela, 13: 00etan, Torrezabal Kultur Etxeko Areto Nagusian. Zozketa udaleko idazkariaren

**TERCERO.-** Comunicar que el sorteo público se celebrará el próximo 15 de octubre a las 13:00 horas en el Salón de Actos de Torrezabal

aurrean egingo da, eta ekitaldi publikoaren fede emango du.

**LAUGARRENA.-** Zozketan onartutakoen behin betiko zerrendak eta zozketarako arauak argitaratzea, garaje bakoitzean eskaini beharreko plazen zerrendarekin batera, Galdakaoko Udaletxeko iragarki-taula elektronikoan eta udalaren web orrian.

Alkatea
Elektronikoki sinatutako dokumentua

Kultur Etxea y se realizará ante el Secretario municipal que dará fe del acto público.

**CUARTO.-** Publicar las listas definitivas de personas admitidas al sorteo y las Normas del Sorteo junto con la relación de plazas a ofertar por cada garaje en el Tablón de Anuncios Electrónico del Ayuntamiento de Galdakao y en la página web municipal.